

Getxo >MEETING<



Getxo MEETING otsailak 1

Zure negozioirako ideiak eskuratu: guztion arteko ideia-jasa

Getxo MEETINGgen, enpresa bat daukaten pertsonak euren negozioa bitaminekin elikatzen duten txokoa, azken saioan gertatu zena kontatuko dizugu. Horrela, ikasitakoaren klabeak ulertu ahalko dituzu (hurrengo topaketarako arin-arin izena ematen duzun bitartean).

Gaia oso ohikoa da: pertsona askok esaten dute euren negozioari gauza berriak ekarri nahi dizkiotela, proposamen berriak. Baina, horretarako, ideia horiek bururatu behar zaizkie, edo ikuspegia aldatu, ideiak interesgarriagoak izan daitezten.

Horrexegatik, joan den ostegunean gai nagusia zure negozioirako ideia-jasa handi bat izan zen. Hara.

Lehenik eta behin sormenaren erronka finkatu genuen; hau da, bakoitzak zertarako behar zituen ideiak. Ondo errepasatu genuen nola zegoen formulaturik; izan ere, idazteko moduak, batzuetan, ekartzen du enfokea desegokia izatea. Badakizue: “galdera on batean dago erantzun on baten oinarria”.

Hona hemen sormenaren erronkaren formulazioko adibide bat: Neure zerbitzuak beste modu batean erakusteko ideiak gura ditut. Eta orduan Brainwriting teknikarekin lanean hasi ginen. Horrela, ideiak idatziz eskuratu genituen eta paperak trukatu, pertsona batzuek beste pertsona batzuen erronkei ideiak eskaini ahal izateko. Ideien saioak aurrera egiten zuen heinean, elementu berriak sartu genituen, momentu horri sormen-estimulu handiagoa eskaintzeko. Parte hartzaileen artean oso giro egokia sortu zen, eta horrelako testuinguru batean hitz bat edo irudi bat ideiak sortzeko lagungarri izan daiteke. Ideia asko. Izan ere, ideien kalitatea baino, kopurua zen bilatzen ari ginen. Une horretan burmuina “galgarik gabe” uztea baita helburua, geure burua ez dezagun mugatu. Horregatik, ebaluazioa geroko uzten da.

Horrela, zenbait ideia atera ondoren, bakoitzak beste pertsona batzuek emandako ideiak irakurri zituen. Amaitzeko, nor bere negoziarako interesgarrien ikusten zituen ideiak puntuatu genituen.

Haien arabera, inspirazio iturri bat izan zen eta, batik bat, beste modu batean begiratzeko eta nor bere ikuspegitik asmatu ezin ditzakeen proposamenak jasotzeko aukera izan zen.

Ikusten duzunez, GetxoMeeting ezberdina da egiten den bakoitzean. Lantzen dugun formatuari eta erabiltzen ditugun metodologiei esker, denbora ondo aprobetxatzen dugu eta kontaktuak behar den moduan egiten ditugu: konfiantzazko giro batean eta elkarri ekarpenak eginez.

Noiz izango da hurrengo saioa? Zatoz **OTSAILAREN 15ean, 14:30ean** (bai, kafea eta pintxoia egongo dira). Zeure enpresako norbaitekin, ezagun batekin edo zeu bakarrik etorri zaitezke. Hauxe izango da gaia: **“Sormena taldean”**: Elkarrekin lan egingo dugu, sormena prestatzeko eta zeure lantaldearekin, bezeroekin edo enpresa hornitzaileekin lan egiten erraztuko dizuten klabeak trukatzeko, zeure talentua eta gainerako pertsonena hobeto aprobetxatzeko. Eman ezazu urratsa!

Dohainik da, baina alde zuretik izena eman behar da. Ez egin kale oraingo honetan.

Izena eman nahi izanez gero:

- Mezu bat bidal dezakezu getxopro@getxo.eus helbide elektronikora.
- Edo, bestela, 944660140 telefono-zenbakira deitu.
- Nahiago baduzu, bulegora ere bertaratu zaitezke (Getxo Elkartegia; Ogoño kalea, 1, Areeta).

Anima zaitez!